

# BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkarte Bergara

1994, ekainak 3



**EDU MURUAMENDIARAZ**  
**Euskadiko Txapelduna**

## Autoberezi



**FIAT**

*Alfa Romeo*



ANTIGUA AUZOA, ANTZUOLA (GIPUZKOA)

☎ 76 62 10 / 76 62 75



**SASOITSU**


**B**adatorkigu uda eta ez gaude "sasoian". Akats haundia egiten da, uda iritsi arte itxoin eta urte guztian batere ez arduratu. Izan ere, sasoian egoteko bizitzeko kalitatea hobetzen ahalegindu behar dugu. Zenbat eta gizenago, torpeago. Zenbat eta arinago, arazo gutxiago. Forma fisikoa (sasoi ona) eta ongizatea ez zaizkigu berez etortzen. Baina behin lortuz geroz, errez mantentzen da elikadura eta iharduera fisiko egokien bidez. Guzti hori kontutan izanik, gorputzeko atal guztiendako programak sortu ditugu, atalka, eraginkortasunik haundiena garantizatzeko.

**AEROBIC-A**

**K**irol eta gizarte arloan azken aldian izan den fenomeno interesgarrienetakoa da, gizonezko zein zein emakumezkoetara zabaldu baita indar haundiz.

**ZER DA AEROBIC-A:**

**A**skoren ustez, dantza eta gimnasiaren arteko erresistentzia entrenamendua da.



**UDARAKO,  
SASOI  
BATEAN!!**

*Aerobic-a pertsonaren forma fisikoa garatu eta mantentzea lortzeko musikaz lagundutako gimnasia modu bat da. Aerobic-eko ariketekin koordinazioa, indarra, malgutasuna, abiadura eta gehienbat bizi-poza hobetzen ahalegintzen gara.*

**GIARTZU**

**Boni Laskurain 3 BERGARA**

Gure ustez, lantzen dugun modua ikusita, pertsonaren forma fisikoa garatu eta mantentzea lortzeko musikaz lagundutako gimnasia modu bat da. Aerobic-eko ariketekin koordinazioa, indarra, malgutasuna, abiadura eta gehienbat bizi-poza hobetzen ahalegintzen gara.

**AEROBIC-SAIOAK**

**A**erobic-saioak hiru zatitan banatzen ditugu:

- 1.** Lehenengoa, beroketa fasea da. Gorputza berotu eta geroko lanerako motibazioa lortzeko helburua duen fasea.
- 2.** Lanik nagusia, musikaren laguntzaz egin ohi ditugun koreografia erraz batzuk osatzen dute. Funky, Low Impact, FunAerobic, Workout..., ariketa globalak egiten ditugu, motibatze hobeak izateaz gain, erresistentzia galtzearekin batera koordinazioa ere lantzen baita.
- 3.** Erlajazioa.

**ZURE FORMA FISIKOA ZURE ESKU DAGO. GUK, NAHI BADUZU, LAGUNDUKO DIZUGU.**



Lehenengo Jauregia, 20.570 Bergara.

Telefonoa eta faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

Miguel Elkarlea

Lehenengo Jauregia, 13. 20.570 Bergara.

Telefonoa: 76 03 97

**Argazkaria:**

Miguel Elorza.

**Argazkaria:**

Miguel Elorza, Eduardo Mendibil eta Miguel Elkoroberezibar.

**Argazkaria:**

Miguel Elorza eta Eduardo Mendibil.

**Argazkaria eta harpidetzak:**

Miguel Elorza eta Gorka Elorza.

Telefonoa: 76 03 97

**Argazkaria:**

Miguel Elorza, Estepan Plazaola,

Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex

Elorza, Inaki Eraña, Juan Martin

Elorza, Josu Oregi, Maripi Laskurain,

Miguel Alzela, Ainhoa Lete, Jon Ander

Elorza, Mikel Lizarralde, Monika

Elorza, Aitziber Aretxaga eta Ainhoa

Elorza.

**Argazkaria eta marrazkiak:**

Miguel Rodriguez, Gorka Ortega, Jon

Elorza, Jose Martin Ezenarro

Elorza eta Julian Ezenarro.

**Argazkaria:**

Miguel Elorza, Txangorri Taldea.

Telefonoa: 3.700 ale.

**Argazkaria:**

Miguel Elorza, E. (Zubillaga, Onati).

Copyright: BERRIGARA

Telefonoa: SS 50/ 91

Telefonoa: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen argazkaria adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura sailaren laguntza jaso du

## Z E R B E R R I D A ?

## ANA MOZOS Abokatua

**- Tabakorik Gabe-ko Nazioarteko Eguna izan dela eta, zer dio legeak gai horren inguruan?**

- Osasunaren Lege Orokorreko 25.2 artikuluan jasotzen denez, tabakoa pertsonaren osasunarentzat sustantzia kaltegarria da. Beraz, konflikto kasuan, erretzen ez dutenen osasun eskubideak lehentasuna izango du tabako erretzaileen aurrean, osasun eskubide hori arriskuan jar daitekeen toki guztietan. Toki horiek zeintzuk diren ez da zehazten eta hor dago eztabaida.

**- Legea ez da betetzen...**

- Oso nekeza da. Tabakoa beste droga bat bezala kontsideratzen



da eta 1988. urtearen inguruan ekin zitzaion arazo hau erregulatze-ari, baina norma horiek praktikara eramatea oso zaila da. Dena den, legea betetzen ez dutentzat zigor gogorrak daude jasota; gobernu-ek ere tabakoaren kontsumoa gutxitzeko neurriak hartu eta guztion osasuna babesteko obligazioa baitaukat.

**"Tabakoarekin, erretzen ez dutenen osasun eskubideak lehentasuna du"**

## I T U R R I O N E T I K

### Lokatza jubenil taldeak Gipuzkoako Itzulira

Lokatza Ziklismo Eskolako Sumofic eta Señorío de Ojeda jubenil taldeak ekainaren 23tik 26ra jokatu den Gipuzkoako Itzulian izango dira.

Guztira, 30 talde izango dira irteeran eta prologoa eta 3 etapa jokatu dira: Alegiko prologoa (3 Km.) eta Segura-Segura (95 Km.), Olaberria-Olaberria (92) eta Andoain-Andoain (90) etapak. Miguel Angel Lazpiur eta Mikel Larrañaga zuzendariak 12 korredore eramango dituzte eta Elosun konzentrazioa egiteko asmoa daukate. Orain 30 bat urte jokatu zen azken aldiz jubenilentzako proba hau.

E S A N  
D U T E

"Lehenengo igandez Bergarako/ Pasaian agertu maisu,/ hankak gora ta behera ibiliz./ gelditu gabe jo eta su,/ gainontzekoak aho zabalik/ begira utzi dituzu./ Aurrekuan ta sueltoan ere/ oso iaioa zera zu,/ bitan txapel-dun irten zera ta/ sasoi ederra daukazu"

**IÑAKI ZELAIA**  
Bertsolaria  
EGUNKARIA

"Hemengo errepideetan trafiko seinale larregi daudela uste dut. Hainbeste daudenez, arriskua adierazten duen seinalaren bat ikusten dugunean, ez diogu ematen benetan duen garrantzia eta arazo horrek askotan istripu ugari sortarazten ditu"

**ESTEBAN MURUAMENDIARAZ**  
Gipuzkoako  
Garraiolarien Idazkaria  
ETB

"Etxezarretako inguruaren balorazioa batez ere zuhaitz eta zuhamuxken azterketan oinarritzen bada ere, ez da ahaztu behar animalien komunitateak, landareen komunitateei lotuta azalduko direla"

**MENDIA BIZIRIK**  
ARRASATE PRESS





**EL PIANO**

Ostirala: 22.30

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

(Ikuslearen Eguna).



**LA MITAD OSCURA**

Osteguna: 20.00.

**Zinea**

▼▼ **Jane Campion**-en filme honek 1993an Urrezko Palma Cannesen eta aurtengo *Oscar*retan bi interpretazio sari jaso ditu (**Holly Hunter** eta **Anna Paquin** gaztetxoak). XIX. mendean girotuta, emakume mutu batek piano baten bidez (**Michael Nyman**en musika) azaldu beharko ditu bere sentimentuak...

▼▼ **Stephen King**en liburuan oinarrituta, **George A. Romero** ezagunak (*La noche los muertos vivientes*) zuzendutako filma. Publizitatean azaltzen zaigunez, iluntasunari beldurra izateko arrazoi nahiko dira, beldurrezko filmetan hainbat aldiz frogatu dugun bezala. **Ami Madigan**, **Julie Harris** eta **Michael Rooker** errepertoburuan.

**Deiak**

▼ **Gorka González**en koadro erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Herri Batasunak** antolatuta, eskualdeko bizikleta martxa igandean, hilak 5, 10etan Beheko Estazioan. Hilaren 10ean bizikleta martxa herriko kaleetatik 18.30etan, 20.30etan murala margotzea eta 21.30etan bertso-afaria.

▼ **Gazteen Bandaren** kontzertua igandean 12.30etan Antzuolako Ondarre azuoa.

**Ogia**

▼ **Igandea 5:** Mizpildi.

**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 4:** Guallar.
- ▼ **Igandea 5:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 6:** Estella.
- ▼ **Asteartea 7:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 8:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 9:** Puy.
- ▼ **Ostirala 10:** Guallar.

**TXISTU MOTOR**

**KOTXE BERRIZKETAK  
SKODA ZERBITZU BERRIA**



Volkswagen t Idea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa  
☎ 76 09 31 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

*Larrañaga*

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**



• **ILEAPAINDEGI MISTOA** •  
• **ESTILISTA** •

Artekale, 29 behea  
Tfnoa: 76 29 70  
**BERGARA**



"Arte Ortonovese in Bergara" izenburupean ikusgai daude Bergarako Kultur Etxean Italiako Ortonovo herriko 11 artisten pintura eta eskulturak biltzen dituen erakusketa. Guztira 27 lan dira, 16 margo eta 11 eskultura. Eskulturen artean, brontzez egindako bi eskultura izan ezik (Gino Corsaninirenak), beste guztiak marmolez landutakoak dira. Horietako hiru Ortonovo ondoko Carrara herriko marmol zuriaz eginak. Aipamen berezia merezi dute Yoshi Ogatarenak (Luigi Corsaniniren eskolan aritutako eskultore japoniarra). Pinturak, bestalde, figuratibo xamarrek direla esan dezakegu. Erakusketa ekainaren 12ra arte izango da zabalik.

Gogoratu behar da, Bergarako pintore eta eskultoreek Ortonovon erakutsi zituztela euren lanak "Pittura Bergarese a Ortonovo" izenburupean 1992ko udan. Herriko 29 artisten lanak ikusteko aukera izan zuten italiarrek. Bergararrek Ortonovora egin zuten bisitaldi haren ondoren, bi herrien arteko harremanak bul-

# ARTE OTONOVESE IN BERGARA

## Ortonovoko pintura eta eskultura

*Kultur Etxean ikusgai ekainaren 12ra arte*



Argazkian, Ortonovotik etorritako artistak, Kultur Etxeko erakustokian.

tzatu nahian eta elkartrukatze moduan, antolatu da Bergaran italiarren erakusketa hau.

Erakusketa joan zen ostiralean zabaldu zen eta bertan Ortonovotik

etorritako 15 bat lagunez gain Bergarako artisten ordezkariak eta Udalekoak izan ziren. Besteak beste, Luis Laskurain, Abdon Juaristi, Migel Okina eta Bingen De Pedro pintoreak eta Luis Abajo kultura zinegotzia eta Imanol Bolinaga Bergarako alkate ohia izan ziren.

Erakusketaren inaugurazio ekitaldiaren ondoren, Altzasun afaria izan zuten bergararrek eta italiarrek elkarrekin.

Afaria Ortonovokoek prestatu zuten: italiar pasta Toscana erara eta oilaskoa saltsa italiarrek. Ardo beltza ere italiarrek ekarri zuten eta afalostean, Bergarako pastelak eta patxarra (grappa italiarra). Larunbatean Arrasaten izan ziren eta igandean, Musika Eskolako Udaberriko kontzertuan. Espaloian bazkaldu ostean, txekorketara joan ziren eta astelehenean, euren herrira itzuli ziren.

**Italiarren 16 pintura eta 11 eskultura daude ikusgai**



**ETXEPARE-BILINTX**

**LIBURUDENDA**

*Liburuak eta diskoak*

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



**Jose Luis Elkorori erantzuna**

Jaun/Andre agurgarriak:

Jose Luis Elkoro jaunak 94-05-20-ko Berrigaran (150. zk.a) argitaratutako kartan aipatzen dituzuen diru aldetiko aldeak aldizkari horren bidez argitzeko eskatzen didanez, lehenengo eta behin esan behar diot 94-05-13ko Berrigara aldizkarian (149 zk.a) argitaratutako kopuruak zuzenak direla eta egia dela 91-04-29ko Plenoan, Elkoro jauna Alkate zegoela, HB eta EAren aldeko botoekin eta PNV, EE eta PSE/PSOEn abstentzioarekin, Construcciones y Dragados S.A.ri 189.502.406 pzt.a tan adjudikatu zitzaizkiola lanak. Baina, adjudikazio kopuruan ez da aipatzen Segurtasun eta Higieneari dagokion partida (5.757.856 pta.koa); Beraz, zuzena da 195.260.262 pzt.a ko diru kopurua.

Edifizioa: 182.137.569 pzt.a.  
 Urbanizazioa: 7.364.837 pzt.a.  
 Beraz: 189.502.406 pzt.a.  
 Segurtasun eta Higienea: 5.757.856 pzt.a.  
 Guztira: 195.260.262 pzt.a.

Harritu egin nau Jose Luis Elkoro jaunak, gaur egun ere Udal honetan HBren zinegotzi izanik, bere ustez, zuzena ez den kopuru bat Berrigararen

bidez salatu izanak, aurrez Udalean dauden agiriak aztertu barik, Azokako kosto osoa, partidaka banatuta, bere eskura baitauka.

Bestalde, adierazi behar diot, badakidala Alkateak ezin duela zuzenean adjudikatu obra bat, baina bai, Alkateak agintzen dituela Plenoan gai-zerrendan tratatu beharreko puntuak.

Nik galdetuko nioke Jose Luis Elkoro jaunari, ea non dauden Pleno batean erreklamatu zizkigun garajeak, bere esanetan, adjudikazio Proiektuan jasota zeudenak.

**VICTORIANO GALLASTEGI**

**Komunak garbi**

Agorrosingo futbol zelaia sarri erabiltzen dugunez, antxitxika egiten dugunoi, hango komunak erabiltzea tokatu zaigu askotan eta lerro hauetatik bertako zaintzaileari eskerrak eman nahi dizkiot, gaur egun ez baita batere erreza komunak behar den bezala topatzea. Lan hori dagokionari lan hori egoki betetzen jarrai dezala animatu nahi diot. Benetan eskerrik asko.

**ROMAN ARTOLA  
 NAN: 15.368.701**

**Berri-Gazte**

Aste honetatik aurrera eta urriaren 14era arte, ez da "Berri-Gazte ikasleen orriak" gazteei dedikatutako atala argitaratuko. Ikasleak ekaineko azterketetan buru-belarri murgilduta daudela eta, uda osterara arte ez da BERRIGARAN azalduko. Horrela, bada, datorren ikasturtean indarberrituta agertuko zaizkigu ikasleen orriak.

**BERRIGARA**

**Tiira biraka**

**GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ**





◆ **Jubilatuen irteera**

Ekainaren 17an "Espainiako Iparraldeko Jubilatuen Anaiarteko Ihardunaldiak" izango dira San Juan del Monten (Miranda de Ebro). Plaza mugatuak. Izen-ematea (1.400 pta.) Jubilatuetan.

◆ **Intsumisoak**

Gorka Iglesias eta Josu Aramendi bergarar intsumisoei 2 urte eta 4 hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote. Bestalde, asteartean Roberto Etxaniz, asteazkenean Gotxi Ibarra eta ostegunean Jon Lazkano epaitu zituzten Donostian.

◆ **AEKren zozketa**

Bergarako AEKK antolatutako zozketan, 367 zenbakia izan da saritua. Boletoren jabeak 2 pertsonendako afaria Zumelagan jasoko du.

# Azoka berria, irailerako

## Ibargaraiko merkatua beste bi hilabetez zabalik

Udaleko Gobernu Batzordeak beste bi hilabetez merkatua Ibargarain jarraitzea erabaki zuen astelehenean. Badi-rudi azkenean merkatuko komertziantek eta Udala akordio batera iritsi eta azoka berria irailaren lehenengotan zabalduko dela. Victoriano Gallastegi alkatearen hitzetan, "gauzak ondo badoaz, irailaren lehenengotan zabaldu daiteke".

Azkenean Udalak luzatu egin du merkatu zaharra uzteko epea, trasladua, komertziantek eskatzen zuten bezala, abuztuan egin ahal izateko. Era beran, komertzianteei lehen pisuan kokatzeko eskakizuna onartu zaie. Prezioari dagokionez, komertziantek Udalak finkatutako prezioarekin (4 miloi pta. postu bakoitzeko) ados azaldu dira baina ordain-



Azoka berria irailaren lehenengotan zabaldu daiteke.

tzeko moduan bada aldatarik: adjudikatzeko orduan 1.500.000 pta. eta gainontzekoa hurrengo 10 urtetan interes tributarioarekin ordainduko dute. Merkatuko ordezkari baten hitzetan, "detaille txiki batzuk zebaztea baino ez da falta. Printzipioz guztiak (7 komertziantek) joango ginateke azoka berrira".

Udalak baldintza berriekin lehiaketa publiko berri bat konbokatuko du. Hori egin ahal izateko lehenbizi Pleno berri bat egin beharko da baldintza plegu berriak ekaineko boletinean argitaratu ahal izateko. Pleno hori, udal iturrien arabera, hurrengo astean izan daiteke.

## Hitzaldiak ekainean

JARDUNek emakumearen gaiaren inguruan hitzaldi sorta bat iragarri du. Ekainaren 9an, Julie Almandoz estibeticien-ak "Azalaren zainketa" hitzaldia eskeinitu du 15.30etan Gartzela Zaharrean. Ekainaren 16an Luis Fernández kirol teknikariak "Emakumea eta kirola" gaia landuko du, 15.30etan Kultur Etxean; hilak 23an, Itziar Larrañaga mediku-hijienistak "Gorputza, sentimenduak, osasuna" 15.30etan Gartzela Zaharrean eta, azkenik, ordu eta toki berean, Aitor Aranzabal Eguzkiko kideak "Ekolojia etxean" gaia izango du aztergai.



# GOIERRI

## Autogidarien eskola

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



# ZIRIPOT

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



◆ **Miserableak Legazpin larunbatean**

Larunbatean, kilometroak 94aren alde, Musika Eskolak Miserableak musika ikuskizuna eskeiniko du Legazpiko Bikuña Kiroldegian gaueko 10etan. Bestalde, ekainaren 18an Arrasateko Amaia antzokian ikusteko aukera izango da.

◆ **Otaba jaiak Elosun**

Elosuko Jai Batzordeak Azkoitiako Udalaren laguntzaz antolatuta, Otaba jaiak izango dira Elosun astebukaeran. Larunbatean, jaien hasiera 5etan susko ziri eta kanpai hotsarekin, ondoren auzo txokolatada eta gaueko 10etan bertso jaialdia Eguskitze, Lizaso, Mendizabal, Murua, Gorrotxategi eta Loidisaletxe-rekin. Ondoren Elorza anaiekin dantzaldia. Igandean, Korpus Eguna, 11etan Meza Nagusia, 12etan Elosuko pelota txapelketaren finala, trikitilari-ekin auzo poteoa eta 5etan herri kirolen jaialdia: Zelai eta Zelailuze Salterain eta Sarasketaren aurka. Egun guztian Elorza anaia izango dira. Astelehenean 12etan auzoko hildakoen aldeko meza, txorizo eta salda eta 3retan auzo bazkaria. Egunean zehar Laja eta Landakandarekin erromeria.



Igandean Mariaren Lagundiko kirol eta jolas zelai berriak inauguratuko dira.

**Mariaren Lagundiko jaia igandean**

*Kirol eta jolas zelai berriak inauguratuko dira*

Igandean, ekainak 5, Mariaren Lagundia Ikastolako kirol eta jolas zelai berriaren inaugurazioa egingo da. Goizeko 10etan etxaflero jaurtiketa egin eta gero Eukaristia izango da; 10.45etan kalejira, pisten inaugurazioa eta aureskua; 11.15etan saskibaloia, futbitoa, pelota eta atletismo probak jokatuko dira; 11.15etan kukañak eta railiea, 11.45etan umeen parkearen zabaltzea eta eguerdiko 12etan paeila lehiaketa. 13.30etan Akordeoi Orkestaren Kontzertua izango da, 14.30etan zelaian bazkaria,

17etan txirrindulari karrera eta ginkana, arratsaldeko 6etan gimnasia erritmikoko erakusketa, 7etan sari banaketa eta, bukatzeko, Patxi Saizekin kantaldia.

Jolas eta zelai berriak egiteko obrak 92-93 ikasturtearen amaieran hasi ziren eta aurtengo ikasturte amaierako jaiarekin batera inauguratu nahi izan dira. Saskibaloia kantxa bat, futbitoko beste bat (mini-basketeko bitan banatu daitekeena), atletismo pista bat eta volley-balleko beste bat zabalduko dira igandeko ekitaldian.

**ANTIA**  
**ARATEGIA URDAITEGIA**  
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*  
 Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65

**ederTU**  
**ALTZARIAK**

**Amets**



- HERGO eta HOBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztieteko kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
 Berezano auzoa OÑATI

**ARRANO**



**Taberna**  
 Kruz Gallastegi BERGARA





Ez ziren susto faltarik izan. Argazkian Oyarzabal lurrean bere kuadrilak ingurututa.

## Zezenketa arrakastatsua

*De la Calle eta Marco Oyarzabalek 6 belarri moztu*

Astebeteko atzerapenarekin, Zezenzaleak taldeak antolatutako txekorketa izan zen igandean. Zezenplaza ia toperaino beteta zegoela, Alvaro de la Calle eta Francisco Marco Oyarzabalek Hnos. Idiazabal naparren bina txekor toreatu eta 6 belarri eraman zituzten.

De la Calle eta Marco Oyarzabalek belarri bana eskuratu zuten beren lehendabiziko txekorrarekin; bigarreanean, berriz, Salamanca De la Callek aurreko faena hobetu eta bi belarri eskuratu zituen. Marco Oyarzabal 16 urteko

naparrak, txekorketako azkenarekin pase bikainak egin zituen baina txekorra 3. ekinaldian bota zuen. Jendeak bi toreroentzat zapi zurriak atera zituen eta Victoriano Gallastegi zezenketako presidentea biei ere bigarren belarri bat eman beharrean aurkitu zen. Oyarzabal eta De la Calle, jendearen txalo artean, bizkarrean atera zituzten. Zezenzaleak taldekoen hitzetan, *"txekorketa iazkoa baino hobea izan da. Gastu aldetik ez da galararik izango atzerapenagatik, seguru bat eginda bait geneukan"*.

### ◆ Toki-Ederreko jaiak

Ostiralean 7etan hasiko dira Toki-Ederreko jaiak ohizko txupinazoarekin. Orduerdi beranduago buruhaundi eta erraldoiak izango dira, 21.30etan pelota partiduak eta gaueko 11etan dantzaldia Izadi taldearekin. Larunbatean 10etan etxafleroak, ondoren futbito partidua, haurrentzako ginkana 11etan, solasaldi herrikoia ordubatean eta arratsaldeko 4retan Toki-Ederreko III. Mus Txapelketa azkarra. 5etarako kukañak iragarri dira, 7etan buruhaundi eta erraldoiak, 8etan Musika Eskolak alaitutako haurren tanborrada, 22.30etan suzko erroberak eta 11etan Joselu anaiak taldearekin dantzaldia. Igandean, 9etan diana, 10.30etan Mutrikuko Bandarekin kalejira, 11etan Aritzetak abestutako meza, ondoren salda eta txorizoa, 12etan auzoko jubilatuentzako luntxa, 12.30etan Mutrikuko Bandaren kontzertua, 14.30etan herri-bazkaria eta 5etan jaien amaiera.

### ◆ Zozketa

Bergarako Jarrairen XV. urteurrenaren inguruan egindako zozketan, 5.966 zenbakia izan da saritua. Irabazleak bidaia bat eskuratuko du (harremanetarako 765567 telefonoa).

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## TXUKUN

### BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA

## Pepelu

**Ileapaindegia**

Zurradero, 2 behea.  
☎ 76 43 07

## TXURRUKA AUTOAK

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako erreparazioak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia



PEUGEOT-TALBOT



# UDABERRIKO Kontzertua

## Jendetza ugari Musika Eskolako jaian



Musika Eskolako Gazteen Bandak, beste taldeak bezalaxe, Espoioan bildutako jendetzaren txaloak sortarazi zituen.

**Musika Eskolako** taldeek sasoi arrakastatsua izan zuten igandean Espoioan eskeinitako Udaberriko Kontzertuan. Espoioa jendez gainezka zegoela, Akordeoien Orkestak, Musika Eskolako koroak, Gazteen Bandak eta Orkestak hainbat pieza eskeini zituzten. Programaz aparte sorpresa

bat ere izan zen Ortonovotik etorritako italiarrentzat. Alfredo González Chirlaqueren zuzendaritzapean, Orkestak, Julen Narbaiza (mandolina) eta Juan Jose Arriaranen (ahotsa) laguntzaz, "O sole mio" eta "Funiculi funicula" italiar kantuak eskeini zituen. Amaieran eta Espoioan

bildutako guztien partaidetzarekin, Musika Eskolako ereserkia abestu zen. Kontzertu amaieran 250 pertsona inguruk herri bazkaria izan zuten Espoioan bertan.

Eguerdiko kontzertuan zehar, Maria Amparo Navarro, Maria Jesus Rekalde eta Begoña Rekalde monjez gain, Musi-

ka Eskolako presidente izandako Ramon Amasorrain eta Jabier Gantxegiri omenaldi bat egin zitzaion, Musika Eskolaren alde egindako lanagatik. Guztiek, errekonozimendu gisa, Musika Eskolaren koadro bat eta Espoioan bildutako jendetzaren txalo zaparrada jaso zuten.



Jose Ramon Amasorrain eta Jabier Gantxegiri (argazkian koadroa eskuetan dituztela) omenaldia eskaini zitzaion igandean. Argazkian, Jesus Alvarez eta Jose Mari Larrañagarekin.

**KONDE**  
PANADEROKUA  
Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

**Sugoi**  
ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...  
Irizar pasealekua, 2 behe  
☎ 76 59 54 BERGARA

**DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80 - 76 06 37





Maria Jesus Rekalde, Maria Amparo Navarro eta Maria Begoña Rekalde igandeko omenaldian.

## Maria Amparo, Maria Jesus eta Maria Begoña monja omenduekin

### "Musika Eskolak funtzio sozial aipagarria betetzen du"

Maria Amparo Navarro, Maria Jesus Rekalde eta Maria Begoña Rekalde monjek Musika Eskolaren omenaldia jaso zuten igandean Espoloian, orain 10 urte Musika Eskola sortu zenetik eta askoz aurretik ere gure herriko musikaren alde lan bikaina burutu baitute. Maria Amparo 11 urterekin etorri zen Bergarara eta 17 urterekin monja sartu zen. Bere hitzetan, "neure bizi guztia musikari lotuta eman dut eta, bereziki, aitarengandik datorkit afizioa, bera kon-

positorea baitzen. Batez ere pianoa eta kitarra erakutsi dut bemen Bergaran".

Maria Jesus, berriz, 12 urterekin Mariaren Lagundian ikasten hasi eta 18 urte zituela monja sartu zen. Oraindik ere ez da musikatik erabat erretiratu, San Pedroko meza nagusietan eta funeraletan organoa jotzen du eta, "Don Josu hil zenetik ez baitago organitarik. Bestela, solfeoa eta pianoko klaseak eman izan ditut urte askotan".

Maria Begoñak Berga-

ran 22 urte eman ditu eta monja Bergaran hasi bazen ere, Bartzelonan eta Santanderren destinatuta ere egon da. Hainbat ikasle-belaunaldi solfeo eta piano klaseak emateaz gain, koroen ardura eraman izan du urtetan.

Orain hirurek poz handiz ikusten dute Musika Eskolak izan duen bilakaera. "Bergararako gauza haundia izan da Musika Eskolaren sorrera, funtzio sozial oso garrantzitsua betetzen baitu bezkuntza mailan, berriri eman dion bizia

abaztu gabe. Musika Eskola martxan jarri zenean Mariasun Calvo zen Ikastetxeko zuzendaria eta Garbiñe nagusi probintzialak eta Maria Dolores Lasheras zuzendari nagusiak laguntza ikaragarria eman zuten lokala uztearekin. Ordu-ra arte gure kontu ematen genituen klaseak eta berehala Musika Eskolara bialdu gintuzten".

Orain ilusio handiz jarraitzen dute beren ondorengoen lana: "guretzat oso hunkigarria izan zen gure ikasleak izan diren Angel Agiriano, Alberto Laskurain, Maria Jesus Ugalde edota Kristina Larrañaga igandean taldeak zuzentzen ikustea. Jerreleboa hartu digute eta borrek asko lasaitzen gaitu".

Musika Eskolaren lana goraiatzeko behin eta berriz; "leben zerbait selektiboa balitz ikusten bazen ere, orain musika oso popularra da, gorkada haundia izan du. Alde borretatik Musika Eskolak zeresan haundia izan du eta Alfredoren lana ere txalotzekoa da; "La mision" edota "Miserableak" bezalako lanak ikaragarriak izan dira eta musika jendearengana hurbiltzeko oso balioagarriak. Gebien destakaturko genukeena zera da: Musika Eskolako guztiak oso elkartatuta daude eta lan egiteko orduan hori asko nabaritzen da".

**CAMACHO**

Drogeria  
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35  
BERGARA

**GURIA**  
Taberna

Bidekurutzeta 5,  
Tfnoa: 76 20 34

**LAKET**

**Gizon Emakume**

Barrenkale 35 BERGARA



# AURRESKUAN JAUN ETA JABE

**Edu Muruamendiaraz bergarar dantzariak Gipuzkoar Aurreskuko XIV. Euskadiko Txapelketa irabazi zuen igandean Pasaian.**

**Orain, Amaia Agirrerekin batera Bikoteen Dantza Askatuko Txapelketa gertatzeari ekingo dio.**

- Edu, nola joan zen txapelketa?

- Ondo, zoragarria gertatu zen. Kalitate handiko jendea zegoen arren beti ere irabazteko itxaropenarekin entsaizten duzu. Lehenbizi, goizean, sailkatze probak izan ziren: 17 dantzarik 10 sailkatu ginen desafioa dantzatu eta gero; arratsaldean, alpargata, agurra eta zortzikoa dantzatu behar izan genituen. Azkenengo honetarako partitura bat eman ziguten aurretik eta hortik bakoitzak, aurreku gipuzkoararen pausuekin, koreografia bat landu behar zuen.

- Amaitutakoan bazenekien irabaziko zenuela?

- Ez, neretako akats bat egin nuen eta ez nuela hain errez izango pentsatu nuen. Gero, nere oste-



Edu, Dantza Askatuko Euskadiko Txapelketa irabazi ondoren Amaia Agirrerekin batera.

an, Ramon Sánchez irundarrak dantzatu zuen eta banekien irabazlea bera edo ni izango ginela. Aurreko bi urteetan Ramon Sánchezek irabazi zuen eta orain neri tokatu zait...

- Trofeoa zure esku-

**etan geratzeko beste bi aldiz jarraian irabazi behar...**

- Hori fenomeno egongo litzateke baina oso zaila da. Beste aukera bat ere badago: nahiz eta jarraian ez izan 5 urtetan txapelketa irabazi, baina

hori niretzat ia ezinezkoa da, 29 urte baitaizkat. Igandean 4 lehenengoan artean bi beterano ginen: ni eta Ramon (bigarrena, 27 urte). Beste biak askoz ere gazteagoak ziren, gero eta gogorrago datoz... baina esperientziak badu zeresanik. Ahaleginduko naiz hurrengo urtean berriz ere irabazten. Beste bi urtez jarraituko dudala uste dut.

- Bikoteka ere emaitza bikainak lortu dituzue...

- Iaz 14 txapelketatik 13 irabazi eta bestean bigarren geratu ginen Amaia eta biok. Aurten 3tan izan gara eta 3rak irabazi, Idiazabal, Gasteiz eta Zaldibin. Ea iaz Seguran irabazitako Bikoteen Dantza Askatuko Euskadiko Txapelketan garaipena errepikatzen dugun... Ordurarte egunero gogor entrenatu behar, oso sakrifikatua da...

- Banaka ala bikoteka gustorago?

- Bietan, desberdinak diren arren. Fandangoa eta arin-arina asko gustatzen zaizkit baina aurreku oso gustora nabil.

## Edu Muruamendiaraz:

*"Gazteak gero eta gogorrago datoz, baina esperientziak badu zeresanik"*

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

**MAKAILO  
ETXEA**

Makailau kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15



# Gune Historikoa

## *Herriaren parte zaharra ordenatu nahian*

**H**erriko gune historikorako plan berezia martxan dago. Bere helburua bertako espazioak eta eraikuntzak ordenatzea. Espazioei dagokienez, bertan zertarako erabiliko diren aurrakusten da: espaloiak jartzeko, bideak egiteko, argiak jartzeko, lorategitarako...

Eraikuntzen kasuan, Plan Bereziak alde zaharrean dauden etxeei eman behar zaien erabilpena zehazten du: etxebizitzarako, erlijio erabileretarako, administrazioarako, kultur ihardueretarako, ikuskizunetarako, kiroleterako, zerbitzuetarako... Horrezaz gain eraikuntzak egitekoan bete beharko diren Ordenantzak ere argitaratu dira. Xabier Gallastegi, Hirigintza zinegotziak, adierazi bezala helburu nagusi bat dute ordenantza horiek: *"Alde Zabarrak duen patrimonioa babestea eta oraingo eraikuntzen ordeztu egingo diren eraikuntza*

**Gune Historikoko Plan Bereziaren aurrerapena egin dute Jabier Yeregi eta Ignacio Aspiazu arkitektoek. Horren bitartez parte zaharreko espazioak eta eraikuntzak ordenatuko dira. Planari egindako sugerentziak aztertu ondoren, Udalbatzarrak onartu beharko du behinbetirako dokumentua. Halere herritar edo kolektiboek badute oraindik euren sugerentziak egiteko denbora.**



Gune Historikoa 95.000 metro karratutako hedadura du eta bertan 1987an egindako erroldan 1.762 biztanle bizi dira.

## ONENA

### TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

# MUJIKKA

## Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA



berriak orain daudene-kin bat joatea. Halere argi utzi nahi dut, Plan Berezia ezin dela konfunditu obra exekuziorako proiektu batekin. Hori etorkizunean etorriko da".

Gune Historikoak 95.000 metro karratuko hedadura du eta Planak neurri batean edo bestean 20 kale eta plazatan izango du eragina. Irizar jauregiko ataripean kale eta plaza bakoitzaren planoak ikus daitezke. Baina, goian azaldu bezala, Planak ez ditu Gune Historikoan egin behar diren obra puntualak zehazten. Edozein modutan, Gallastegik aitortzen duenez, Gune Historikoak baditu epe motzean eta erdi-epean konpondu beharreko gauza batzuk: lur azpiko azpiegitura (saneamendua, alkantariak, ur sarea...) esate baterako.



Laudantz kantoitik Bolurainoko konexioak hobetzeko asmoa dago. Beheko argazkian, Galarretaneko gune horretan Xabier Maria Munibe izeneko plaza egingo da.

Bitartean, posibilitate ekonomiko eta juridikoak kontutan izanda, lan puntualak egingo dituzte: "Barrenkaleko etxeetan fatxadak berregokitzeari

ekin diogu, eta, modu berean, Irala kaleko egokitze lanak eta Irizar jauregiko lorategiak moldatzeko lanak egin ditugu. Ezin dugu abaztu, bestalde, Udaletxea berritzeko lan garrantzitsua, horren bitartez San Martin plaza eta Goiko Plaza elkartu baitira".

Gune Historikoko Plan Bereziaren aurrerapen dokumentua -Jabier Yeregi eta Ignacio Azpiazu arkitektoek egin dute. Guztira 83 orri eta 21 plano ditu eta lan hori egiten 5 hilabete inguru eman dituzte. Dokumentua egiterako orduan hainbat erizpide izan dituzte kontuan. Lehenik eta behin eraikuntzen kontserbazioa eta birgaitzea izan dute kontutan, ego-

era txarrean dauden kale eta plazak errekuiperatzeko ahaleginak ahaztu gabe. Bigarrenik eraikuntzak sailkatu egin dituzte euren garrantzi historiko eta arkitektonikoaren arabera.

Azkenik, karkabak errekuiperatzeko asmoa azaltzen da. Horrekin etxeetan patioak zabalduko lirateke, bertan etxeentzako zerbitzuak egokitu eta fatxada nagusietatik tuberia eta arropa-eskegilekuak kentzeko.

### "Sugerentzia gutxi"

Plan Bereziari sugerentziak egiteko epea datorren astelehenean amaitzen da, baina oraindik Planaren aurrerapena



**"Herritarren iritzien zai gaude, Gune Historikoaren plana hobetzeko"**



denez, aurrerantzean sugerentziak egiteko aukera izango da. Halere Gallastegik esan digunez biztanleen sugerentziak garrantzitsuak dira. "Planak zuzenki eragiten diren zein edozein bergararrar edo kolektiboren eritzia jasotzea garrantzitsua da. Zentzu borretan, ikusi dugu Administrazio eta administruaren arteko eta alderantzizko barremanak pobreak direla. Bakarrik partikular baten eta Udal Museologoaren sugerentziak jaso baititugu". Sugerentziak aztertu ostean, arkitektuek Dokumentu Teknikorako Proposamena erredaktatuko dute. Hori Hirigintza Batzordeak onartu beharko du eta ondoren, Udalbatzak hasierako onarpena emango dio. Tramite horren ostean, hilabete bat baino gehiago ikusgai izango da jendeak alegazioak egin ditzan. Hauek



Oinezkoek gero eta garrantzia haundiagoa izango dute etorkizunean herriaren alde zaharrea. Beheko argazkian, Jabier Yeregi arkitektoa planoak azaltzen.

aztertu eta gero, alegazioak Udalbatzara eraman dira eta hor behin behineko aprobazioa emango zaie datorren urteko otsailaren inguruan. Hurrengo 6 hilabeteetan

Diputazioak behinbetiko aprobazioa emango dio.

### Gune Historiko orekatua

Gallastegiren iritziz beste herri batzuekin konparatuz, gure herriko Gune Historikoa maila onean dago. "Beste herri batzutan Gune Historikoa bizitzeko tokia izatetik zona komertziala izatera pasatu da edo alderantziz. Horregatik, Bergara oreketua dago".

Etxeen egoerari dagokionez, Gallastegik aipatzen duenez, orokorrean nahiko egoera onean daude, jabeei esker, eta azkenaldian fatxada eta teilatuen birgaitzea gehitu egin da. Baina Hirigintza zinegotziak dioskunez lur zoruaren egoera da gehien kezkatzen duen arazoa: "Azken urteetan alde zaharretik trafikiko asko pasatu da, ardatza izan da, eta Udal laguntzak beste jarduerak batzutan oinarritu dira".

## Oinezkoak nagusi

**Gune Historikoak 95.000 metro karratu ditu eta 1987ko azaroan egindako ikerketa sozio-urbanistikoaren arabera, bertan 1.762 biztanle bizi ziren. Planaren barruan dauden berrikuntzarik nagusienak Alde Zaharraren eta bere inguruko kaleen arteko konexioak dira, zehatzago esanda, Xabier Maria Munibe plaza A-20rekin (Zabala eta Unzurrunzagako ortuekin) lotzea eta Laudantzeko kantoia Bolurekin lotzea. Zabalotegi San Pedro kalearekin lotzeko proiektua ere hor dago. Era berean proiektua egin dutenen beste asmo garrantzitsu bat Gune Historikoan ahalik eta kale gehien oinezkoentzako izatea da.**






# Zein hondartzatara joaten zara normalean?



**Garbiñe Ibabe**  
26 urte, langabetua

Mutrikura, ez da jende asko joaten eta arria ez zaidanez gustatzen eta han ez dagoenez..., normalean beti hara.




**Jordi Prat**  
20 urte, ikaslea

Saturraranera, Debakoa zikina egoten da eta... Ondarroakoa ere gustatzen zait. Hondartza pizina baino gehiago gustatzen zait.



**Marian Lizarralde**  
31 urte, langilea

Donostiara, Grosera eta batzutan Hendaiara. Jende gutxiago ibiltzen delako. Pizina ere asko gustatzen zait.



**Jose Mari Urzelai**  
43 urte, langilea

Ez naiz joaten, nahiago dut mendira joatea. Plaian auto eta traba asko egoten da eta... Ez zait gustatzen, ahalik eta gutxien joaten naiz.



**Mertxe Lazkano**  
58 urte, etxeoandra

Donostiara, Conchara. Eguzkia hartu eta pasiatzera. Lehen Saturraranera... Mendia baino gehiago gustatzen zait hondartza.



**Juan Pineda**  
52 urte, langilea


Abuztuan Valentziara baina hemen Debara joaten naiz gehien. Donostiara ere bai... Dena dela, mendia gehiago gustatzen zait.

**Iletxo**

Ileapaindegi  
mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15  
20570 BERGARA



**POL-POL**

**TABERNA**

☎ 76 07 78

**BEHEKO  
TABERNA**

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**DEPORTIVO**

**TABERNA**

☎ 76 01 51





## Desprisonalizazioa

Kode penal berriaren proiektuak ere, aurrekoak bezala, intsumisioa delitutzat jotzen du. Ez dago intsumisioaren despenalizaziorik eta horren ordez laster barra-barra entzungo dugun termino bat entzungo dugu: "Desprisonalizazioa".

Intsumisioa "desprisonalizatu" egingo da, kontzientzi presoak izatea gero eta garestiagoa delako demokratikoa izan nahi duen estatu batentzat. Intsumisioak espetxeratuaz legearen eta hiritargoaren arteko etena sortzen da eta sistemaren legitimitatea zalantzan jartzen da milaka gazte kondenatzean.

Hala ere, solidaritatea bai, baina bere menpean eta bere zerbitzura denean bakarrik nahi lukeen Estatu honek nolabaiteko zigorren bat asmatu beharra du bere interesak aurrera ateratzen laguntzen ez diotenentzat. Eta hala erabaki du diru-zigorrek edota 10-14 urterako inabilitazioak jartzea denbora horretan ez laguntzarik, ez bekarik, ez subentziorik kobratu ahal izateko. Gehiago oraindik, aurreproiektuak gidatzeko kentzea ere aipatzen du. Guzti honek Belloch ministroak gizartearen erantzuna jakin nahiz jaurtitako enbidoa ematen du. Eta hortxe dago hain zuzen ere auziaren gakoa: zigor berriekin, inor gartzeleratzen ez dela, litekeena da gizarte sektore batzuk lasaitzea eta zenbait alderdi politikok gaiari buruz ezer ez jakin nahi izatea.

Gero eta beharrezkoago da gizarteak besterik gabe "alde" egoteari utzi eta konpromisu aktiboa hartzea. Bergaran sortu nahi den Intsumisioaren Aldeko Plataforma bultzagarri egokia izan daiteke herritarroi gogorarazteko gure konpromisu antimilitaristagatik gizarte eskubide garrantzitsuak kendu nahi dizkigutela.

**Jesus Mari KALBOETXEAGA**



## Azoka bizia, ez mausoleoa!

Hirietako merkataritza mugimendua azoketako produktuen salerosketatik bideratu izan da betidanik. Bergarako abantaila horiek jadanik 1273.ean eman zituen Alfonso XI.ak. Izan ere, liburu zaharrek diotenez, gure Bergara "de inmemorial tiempo acá se halla en posesión de tener mercado público" eta merkatu honen eragina ez zen Bergara inguruko herrietara mugatzen.

Ondoren, mende honen hasieran zementu armatuzko merkatu berria... 85ean hori botatzeko erabakia... Jendea ateratzen da, kondizio hobetan saltzea ere ziurtatzen da... Baserritar eta saltzaileak handik hona... Eta azoka berriak koste izugarria, funtzionalitatea hutsa... Mausoleoa.

Bertan jartzeko hainbat bilera, konponezinak, bitartean dirutzak galtzen, azokaren kapazitatea debaluatzen, merkatu kuota galtzen. Garai batean urrutiko erregeek ere laguntzen zutena gaur egun herriko agintariak frenatzen?

Zorionez, badirudi akordio batera iritsi dela postu fijoekin. Baina arazoak ez dira amaitu. Baserritarrak irtenbide bat aurkitzearen onartutako hala-moduzko soluzioa burutzeko ere (behean ranpa eta sarrera berri bat egitea, jeneroa eta jendea egoki sartu ahal izateko eta denak batera egoteko) ez omen dago dirurik eta Udaletxearen proposamena... ahal den moduan konpontzea, saka-banatuta, batzuk goreneko pisuan, besteak pasilotan edo beheko zuloan galduta. 300 milioi gastatuta merkatua gaizki egin delako, ez ote ditugu merezi 4 milioko obra horiek gutxieneko era duin batean saltzeko? Beharrezko kontsiderazioa eta buru-argitasuna nagusituko al da, baserritarrik gabeko azoka berri baten testigu izan ez gaitzen. Herriak ere, duela 700 urte bezala, baserriak eta baserritarrak behar bait ditu.

**Maite ARISTEGI**

# INGELESA-FRANTZESA

**UDAKO IKASTARO TRINKOAK**

- **NOIZ:** Ekainaren 27tik uztailaren 15era.
- **MAILAKETA PROBAK:** Ekainaren 17an.
- **MAILA GUZTIAK**
- **ADIN GUZTIAK:**

- Haurrak
- Gazteak
- Helduak

• **INFORMAZIOA:**  
Begarako UNED.  
(3. pisua) ☎ 76 06 87



**FS** oto istema *APBenis*

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50





**Euskaltegiko afaria**

Ostiralean Euskaltegiko 10. urteurrena ospatzeko herri bazkaria izan zen Euskaltegiko Frontoian, Zabalotegin. Bertan, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Koldo Pereira zinegotzia, Andoni Larrañaga eta Anaje Narbaiza zinegotzia ohiak, Maria Dolores Lete Euskaltegiko zuzendaria edota Jesus Argiñarena eta Josu Barrena HABEko teknikariak izan ziren, oraingo eta lehengo

ikasle eta irakasleekin batera. Bildutako **60 bat lagun** inguruk primeran pasa omen zuten **Imuntzo eta Ritxar trikitilariek** alaitutako afarian. Zorionak Euskaltegiari eta urteak betetzen jarrai dezala!!

**Juste Amenabarri omenaldia**

Juste Amenabar bergararrak **Santa Mari-nako katekisten** omenalditxo bat jaso zuen igandean. Katekisten ikasturtearen amaierarekin batera, Juste Amenabarrek gazte gaztetatik egindako lanaren aitortpena jaso zuen. Goizean, ikasle eta ikasleen gurasoekin batera Santa Marinan meza entzun ondoren, Justeri dominatxo bat entregatu zitzaion, oroigarri gisa, eta jarraian 30 bat katekista eta Xabier Zubizarreta eta Karlos Ostolaza apaizak Ollagorran bildu ziren bazkaltzeko, guztiak egun ahaztezina igaroz. Zorionak Justeri!!



Juste Amenabarrek katekisten omenaldia jaso zuen igandean.

**YAZKI**  
**UME GAZTE**  
**Neska eta Mutil**  
 Irizar 3      Ibargarai 8  
 ☎ 76 16 54      ☎ 76 54 73

ARTISAUTZAKO IZOZIA  
**GOXO-TOKI**  
 D. Irala, 3 - Tlf. 761235  
 Mabilategi, 34 - Tlf. 762337  
 BERGARA

**PINTXO ETA BIKADILOKAK  
 ETA SEKULAKO MARTXA**  
**EXEBIO II**  
 Irala kalea z/g      ☎ 76 07 92





**Magiarekin gozatzen**

Aurreko ostegunean eta Tolosan izandako Magia Astea aprobetxatuz, **Taun-Tauneko** lagunek **El gran Gascó** kubarra eta Toledoko **Prestiman** magoak Bergarako **Itxasmendi** tabernara ekarri zituzten. **"Espejismos"** izenburuko ikuskizunarekin, bertaratutako jendea (30 bat lagun) ahozabalik geratu zen, sinistuezinezko hainbat trikimailu eskeini baitzituzten jendearen partaidetzarekin. Era berean, jendeak barre egiteko aukera ere izan zuen, abileziaz gain, bi mago hauek umore oso fina azaldu bait zuten emanaldi osoan zehar. Trikimailuen azalpena beste urte batetan izan beharko!!

**Omenaldia**

Bergara eta Euskaldunaren arteko futbol partiduaren atarian, **Iker Muruamendiaraz** Bergara K.E.ko pelotari gazteak trofeo oroigarri bat jaso zuen igandean Agorrosinen. **Iñigo Zaitegi** presidentek eman zion trofeoa Ikerrek egin duen denboraldi bikainagatik, besteak beste, Euskal Ligako irabazlea izan baita aurtengo denboraldian.



**Zertan dibardute ba?**



**Ainhoa Agirreazaldegi**

Ipintza Institutuan ikasten ari den 16 urteko bergararra parte hartzekoa zen gaur Ikastolen Elkarteak, Urruñan antolatutako Euskal Herriko Eskolarteko VI. Bertsolari Txapelketan. Ainhoa 14 urtetik 18ra bitarteko kategorian izatekoa zen eta berarekin batera, Gipuzkoatik, Maddalen Lujanbio hernaniarra zen joatekoa. Beraiekin batera Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko bikoteak egongo dira gaur goizeko bertso saioan. Ainhoaren hitzetan, *"nere asmoa lan polita egitea da, irabaztera joan ezkerro askotan buts egiten baituzu. Ea zer nolako saioa irtetzen den..."*.

**Maxim's**  
☎ 76 20 61

**Usoa Pub**  
  
Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1

**ETXALAR**  
**KRUASANTEGIA**  
Gosariak eta meriendak  
Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68



# Pili Kortazar

**Pili Kortazar (42 urte)**  
**UNEDeko idazkaritzan ari da**  
**lanean orain 18 urtetik. Aldi**  
**berean, Euskal Herriko**  
**Unibertsitateko presoen**  
**programaren (300 matrikula**  
**inguru) koordinatzailea da.**

- Zenbat matrikula egiten dira urtero UNEDen?
- 2.000 inguru.
- **Karrerarik arrakastatsuena?**
- Deretxo.
- **Eta eskaera gutxien?**
- Zientzietako edozeinetarako.
- **Distantziara ikasi daiteke?**
- Nahi izanez gero bai.
- **Presoak ikasle onak dira?**
- Denetatik dago.
- **Zein karrera ikasi nahi zenuke?**
- Medizina.
- **Eguzkia ala keizpea?**
- Eguzkia.
- **Zein hondartzara joaten zara?**
- Saturraranera.
- **Bokadiloric eramaten duzu?**
- Ez.
- **Poloa ala kukurutxo?**
- Ez bata eta ez bestea, zerbeza bat nahiago.
- **Janari bat.**



*"UNEDeko karrerarik arrakastatsuena Deretxokoa da; neri medizina ikastea gustatuko litzaidake. Eguzkia gustatzen zait, baita futbola eta boxeoa eta forman egoteko onena fisikoa zaindu eta lan egitea da"*

- Garbantzuak.
- **Dietetan sinisten duzu?**
- Onena danetik jatea.
- **Forman egoteko zer?**
- Fisikoa zaindu eta lan egin.
- **Oporretan nora?**
- Kanarietara, beharbada.
- **Emakume baten edaderik onena?**
- Guztiak dira onak.
- **Piropoak entzutea gustatzen zaizu?**
- Bai. Onena? Kamionero eta konstrukzio langileenak.
- **Kirol bat.**
- Futbola eta boxeoa.
- **Futbol talde bat.**
- Las Palmas, igandean Barakaldon ikusiko dut.
- **Eta boxeadore bat?**
- Cassius Clay.
- **Prensa larrosarik irakurtzen duzu?**
- Ez.
- **Behin baino gehiagotan ikusi duzun filma?**
- Ez zait gauzak errepikatzea gustatzen.
- **Urteko egunik onena?**
- Nere urtebetze eguna.
- **Zein miresten duzu?**
- Inor ez.
- **Nork irabaziko du Giroa?**
- Berzinek.
- **Zer ez duzu soportatzen?**
- Euria.



## IRAKASLE ESKOLA

Magisteritza Eskola honek zera jakinerazten du:

**1994-95 ikasturterako aurreinskripzio epea zabalik dagoela**

Ikastetxe honek Euskal Herriko Unibertsitateak onartu dizkion espezialitateetatik, honako hauek ezartzeko eskabidea egin du 1994-1995 ikasturteari begira:

- Haur Hezkuntza
- Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
- Hezkuntza Musikala

Informazioa:  
 IRAKASLE ESKOLA ☎ 943 / 71 41 57  
 20540 ESKORATZA (Gipuzkoa)



# BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



## Encarna Lasheras

**ENCARNA LASHERAS** dugu aste honetako BONOFOTOko irabazlea aurreko galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen eskulturaren egilea **Juan Angel Balenziaga** zen. **Encarnak** asmatu du eta berak eskuratu ditu sariko **10.000** pezetak. **ZORIONAK Encarna,** eta besteok segi jokatzten.

1897ko abuztuaren 8an Canovas Del Castillo Santa Agedan hil zuen eta Bergarako kartzelako patioan hil zuten anarkistaren izena zein da? Zein egunetan hil zuten?

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria:  
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**



# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,  
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamentua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak


**GUZTI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JOAN GABE!!**

Zerkaosketa, 17 etxabea.  
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18


# ELKAR


## MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD

**ELKAR** 

ELEKTRAGINTZA

 **76 00 00**



Koldo Elizalde, 8  
BERGARA  
☎ 76 00 00

# ELEKTRAGINTZA



# Ipintzako futbol txapelketa prest

*Astelehenean hasiko da eta 16 talde arituko dira lehian*

**Astelehenean emango zaio hasiera Adin mugarik gabeko III. Ipintzako futbol txapelketa.**

Guztira 16 ekipo arituko dira lehian eta lau taldetan banatuko dira. Lehen taldean, Mongatxurra, Bildurbarek OPEL-LAM, Txipiron eta Altos Pornos izango dira. Bigarrenean, berriz, Osintxu, Os Jardineiros, Paok De San Juan eta Kutres. Hirugarren taldean honako hauek arituko dira: A Ze Flaxa, Ogizun, Amilotx eta Ufala eta lau garren taldean, azkenik, Arloteak, Pikapiedras, Ezinleike eta Angiozar taldeak izango ditugu.

Partiduak astelehenetik ostegunera, arratsaldeko 7.30etan eta 8.30-etan jokatuko dira, egunero bi partidu. Lehen fasea ekainaren azken astean amaitzea espero da. Lehen zati horretan talde bakoitzeko bi ekiporik onenak sailkatuko dira eta zortzi horien artean final laurdenak jokatuko dira uztailleko lehen astean. Finalerdiak hurrengo astean jokatuko lirarteke eta finala uztailaren 8an jokatzea espero da

**Nobedadeak**

Aurreko edizioetan federatuak dauden jokalariak jokatzeke aukera izan bazuten ere, aurten ez dute jokatuko, horrela erabaki du eta Bergara Kirol Elkarteak, txapelketaren antolatzaileak, Javi



Mongatxurra eraman zuen txapelketa joan zen urtean.

Perez futbol entrenatzaile nagusiaren eskariak kontutan hartu eta gero.

Bestalde, aurten ez da beteranoen mailarik izango. Aurreko urteetan hiru

talde bakarrik aritu izan dira eta aurten ez antolatzea erabaki da.

**LABEGARAIETAKO** *futbito* **txapelketa**

<b>OGIZUN</b>	<b>3</b>		<b>F I N A L A</b>
<b>TOKIEDER</b>	<b>6</b>	<b>TOKIEDER</b> Igandea, 16.30	
<b>MONGATXURRA</b>	<b>1</b>	<b>ERROTAGAIN</b>	
<b>ERROTAGAIN</b>	<b>6</b>	<b>ERROTAGAIN</b>	
<b>BILDURBAREK LAM</b>	<b>1</b>	<b>MADURA</b> Igandea, 17.30	
<b>MADURA</b>	<b>9</b>	<b>MADURA</b> USOA	
<b>ANGIOZAR</b>	<b>2</b>	<b>USOA</b>	
<b>USOA</b>	<b>5</b>	<b>USOA</b>	
<p>Play-Offekoak ezezik, igoera-jeitsiera faseko partiduak ere jokatu ziren joan zen astebukaeran. Emaitzak honako hauek izan ziren: Akort Ariznoa 2-Uve Bikoitza 6, Ezinleike 3-Etxagi 7, OH Zerezos 1-Hartu Zamak 0 eta Nahikari Hooligans 1-Ufala 2. Irabazleek datorren urtean lehen mailan jokatuko dute.</p>			





Manuren mutilak igandean Agorrosin aurrean, Mendaroko bidea hartu aurretik.

## Mailari eutsi Manu Diazen mutilek

*Lehen Erregionaleko futbol taldea azken momentuan salbatu zen*

Bergara K.E.ko lehen errejonaleko futbol taldeak kategoriari eustea lortu zuen igandean, Kilimonen aurka ligako azken partidua 1 eta 0 galdu arren. Mendaron jokatu-tako partiduan ez zen polemika faltarik izan; bergararrek nahikoa zuten berdinketa kategoriari eusteko eta galtzekotan beste emaitzen menpe geratzen ziren. Kilimo-

nek, berriz, behar beharrezkoa zuen partidua irabaztea itxaropenen bat izateko.

Partidua amaitzeko minutu bat falta zela epaileak penalti bat asmatu omen zuen Bergararen aurka eta jokaldi horren ondorioz Bergarako 3 jokalaririk bota zituen kalera. Azkenean Kilimonek partidua aurrera ateratzea lortu zuen arbitroaren la-

guntzaz baina freskatzen zeukaten txanpanak ez zuen garaipen zaporerik izan. Bergararrei beren ospakizunetan parte hartzeko gonbidatea egiten zieten bitartean, Mendarokoak, Haizea eta Groskorekin batera kategoriaz jeitsiko zirela ohartu ziren. Manu Diazen taldeak, berriz, beste denboraldi batez lehen errejonalean jarraituko du.

## Lokatzakoak bikain

**Lokatz-Sumofic 2. urteko kadete taldea 2. postuan sailkatu zen Alegin jokatu-tako Gipuzkoako Erlojuz Kontrako Txapelketan.**

**Ibilbidea 35 Km.koa zen eta Oñatiko taldeak irabazi zuen. Felix Unamunoren argazkian, ezkerretik eskumara, Gotzon**

**Del Teso entrenatzailea, Aperribai "Perre", Ritxar De Goñi, Aritz Urbina, Eñaut Urzelai eta Ion Unamuno. Bestalde, Aitor Larrea jubenila 3. izan zen Lazkaoko Euskal Ligako proban.**



## Finalaren atarian

**Bergara K.E.ko pelota sailak** ez zuen Ametzetako taldea gainditzerik izan Herri Arteko Txapelketaren finalerdietan. Bergaran 1 eta 2 galdu ondoren, ostiralean Ametzetan 3 eta 0 galdu zuten infantil (18-3), jubenil (22-18) eta senior bergararrek (22-12). Larunbatean 3. eta 4. postuetarako partidua jokatu dute Oñatin, 22.30etan, Arrasateren aurka.

Bestalde, Aitor Muruamendiarazek eta Eduardo Samaniegok osatutako bikoteak Zaramagako Txapelketa irabazi zuen, Zabaleta eta Gutierrez bergararrei 22 eta 18 irabazi ondoren.

## Txapeldunorde

Bergara K.E.ko lehen mailako **infantil futbol taldeak** 2 eta 3 galdu zuten Gipuzkoako Kopako finala Beti-Onaren aurka, larunbatean Zumaijan.

Lehen mailako kadeteak, berriz, Gipuzkoako Kopako finalerdietan 4 eta 6 galdu zuten Billabonaren aurka.





**Eskubaloi jokalarit trebeak.** Aranzadi Ikastola-ko 12-14 urteko neskez osatutako eskubaloi taldea, bigarren sailkatu da Eskolarteko Gipuzkoako Txapelketan. Pasa den astebukaeran jokatu zuen finala Elgoibarren, bertako San Bartolome Ikastolaren aurka eta 10 eta 7 galdu zuen. Larunbatean, finalerdietan, Erreterriako Langraitz ikastolari 7 eta 4 nagusitu zitzaizien bergararrak.

Bestalde, Irune Gómez (makurtuta, ezkerretik hasita lehenengoa), uztailaren 16tik 23ra bitartean Lleidan egingo den estatu mailako eskubaloi jokalarien elkartzeari izango da. Estatu osoko txapelketetan nabarmendu diren jokalariek izango dira bertan.



Ariznoa taldeko gimnastak bikain ari dira azkenaldian.

**Ariznoa Gimnasia Erritmiko** Taldeko gimnastek Euskadiko Txapelketan parte hartu berri dute. Infantiletan, Amaia Ortiz de Urbina 8. postuan geratu da, juniorretan Ana Sebaiek 5. postua eskuratu du eta jubeniletan, berriz, Amaia Arrieta 2. eta Saioa Garitano 10. postuan sailkatu dira. Amaia Arrietak, 2. postu horrekin, Espainiako Txapelketarako txartela lortu du. Kategoria bakoitzeko 15 bat gimnastek hartu dute parte.

# Txinpartak

## PIRAGUISMOA

Pazkuetako domekan Deba Ibaian jokatu zen piraguismo frogaren emaitzak: 9 piraguistek hartu zuten parte, eta Eneko Balzategi (30 puntu) izan zen garaile. Bigarren losu Mozos (35 puntu) sailkatu zen; hirugarren eta laugarren postuetan, berdindurik, Gorka Fernandez eta Igor Setien (60na puntu), eta bosgarren Zigor Azkargorta (65). Ondoren, Aitor Corral, Beñat Eguren, Ibai Moreno eta Igor Landa.

## BOLEIBOLA

Deba Garaiko kirol zerbitzuek boleiboleko entrenatzaile ikastaroa antolatu dute. Klaseak ekainaren 12, 13, 18 eta 19an Arrasateko Musakola Kiroldegian izango dira, larunbatetan goizeko 9etatik ordubetara eta arratsaldeko 4etatik 8etara. Igandetan goizeko 9etatik ordubatera.

Ikastaro honekin benjamin, alebin, infantil eta kadete mailak entrenatzeko titulua eskuratu daitezke eta honako gai hauek landuko dira: arautegia, talde zuzendaritza, plangintza, prestakuntza fisikoa, teknika, taktika eta miniboleibola (azken hiru hauek euskaraz). Bertan parte hartzeko baldintza bakarra 17 urte baino gehiago izatea da. Matrikulak 8.000 pta. balioko du eta Deba Garaiko edozein kiroldegiko bazkideek 6.000 ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea Kirol Zerbitzuan egin daiteke.

## KARATEA, AEROBIC-A...

Kirol erakustaldia. Bolu Gimnasioak kirol erakustaldia antolatu du igande honetarako. Asmoa gimnasioan egiten diren kirolak jendeari erakustea da. Horrela, bada, karate, aerobic, Wing-tfuni-eskrima edota kulturismo saioak ikusi ahal izango dira, igandean eguerdiko 12etan hasita, Labegaraieta Kiroldegian. Gimnasioan ari diren kirolariak arituko dira.

## ARRANTZA LEHIAKETA

Ollagorrra Ehiza eta Arrantza Elkarteak antolatuta, arrantza lehiaketa izango da igande honetan goizeko 8etan hasita Angiozar errekan.

## IGERILEKUAK ZABALIK

Eguzkia hartzeko bakarrik bada ere, asteazkenetik zabalik dira kanpoko pizinak. Egunero arratsaldeko 6.30ak arte izango dira zabalik.



## Poligonoko haurreskola, 1970

**G**aizto aurpegia duten horiek Poligonoko Eskolako haurreskolako ikasleak dituzue. 1970-an ateratako argazkia da eta gaur egun 28-30 urte izango dituzte. Andereñoaz gain, argazkilariak ere lan dexente izango zuen danak formal formal eseri arazi eta korrikan hasi baino lehen klak! guztiak harrapatzeko. Ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Paqui Molina, Jesus Mari Goñi, Josu Etxabe, Mari Karmen andereñoa, Patxi Míguez, Mercedes Míguez, Aitor Albisua eta ezezaguna.

**Bigarren ilaran:** Juan Ignacio Díaz, Fernando Martínez, Alberto Viana, ezezaguna eta Eli Agirre.

**Hirugarren ilaran:** Patxi Jiménez, ezezaguna, Mari Jose Juaristi, ezezaguna, Jose Manuel Vicente, Angel Palacios, ezezaguna eta Amaia Alberdi.

**Laugarren ilaran:** Jose Antonio Martin, Antonio Moral, ezezaguna, Emi Becerra, Elena Garitano, Pedro Mari Urbina, Maria Antonia Unamuno eta Eneida Larrañaga.

**Bosgarren ilaran:** Luis Martin Oregi, Maria Elena Eguren, Solsoles Vinuesa, Arantzazu Agirrezabal, Iñaki Soto, Maite Irigoien, Maria Jose Morras eta Maite Agirrezabal.

**Beheko ilaran:** Maria Jose Llamas, ezezaguna, Iñaki Basterra, Milagros Manso, Begoña Almeida, Juanjo Lascurain, Antonio Martínez eta Jose Mari Martínez.

*Argazkia: Maria Elena Eguren*



**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea  
Bidekurutzeta 29  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

**AGIRREBEÑA**  
Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria  
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

**OILAGORRA**  
Taberna  
Barrenkale 21, BERGARA



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokatzen da **Jacan**, herri-erdian.  
☎ 76 43 98.

**Garajea** salgai Santa Mar-  
rian. ☎ 76 34 31.

**Garajea** salgai San Lo-  
rentzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Kruz Ga-  
llastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** Zubiaurren.  
☎ 76 25 19.

**Garajea** (bi plaza) salgai  
Ibargarai kalean.  
☎ 76 52 55.

Zubiaurren **pisua aloka-**  
**tzen da.** ☎ 76 13 85.

**Garajea salgai** Ibargarai  
kalean. ☎ 76 00 93.

**Pisua salgai** Donostin,  
Amara Berrin. Eguzkitsua.  
☎ 46 36 53 (19-22.00).

**Pisua alokatzen** da Zaba-  
lotegin. ☎ 76 33 93.

**Pisua salgai** Zubiaurre  
23an. ☎ 76 31 49.

**Pisua salgai** Artzamendi  
17n. ☎ 76 10 55.

**Pisu** amueblatua salgai  
Bolun. ☎ 761075 (gauzez).

**Pisua** salgai Artzamen-  
din. ☎ 76 44 60.

**Etxea** salgai Martokon.  
☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Ibarga-  
rain. ☎ 76 36 69.

**Pisua** alokatzen da Kruz  
Gallastegin. ☎ 76 11 89.

**Pisua amueblatua salgai**  
Zabalotegin. ☎ 76 32 27.

**DENETARIK**

**Sango remolke** bat sal-  
gai. Egoera onean.  
☎ 76 61 74.

Korredore **bizikleta** sal-  
gai (10.000 pta., alebin  
neurria). ☎ 76 54 24.

**Txakur Alsaciano** bat  
oparitzen da. ☎ 76 31 28.

**Edertze aretoa** traspasa-  
tzen da. ☎ 76 58 88.

**Kanpin denda** (2 gela eta  
portxea) salgai. 2 urte.  
☎ 76 58 12.

Paseozko Torrot **bizikleta**  
salgai, 13.000. ☎ 76 48 68.

Enkuadernatzeko **prensa**  
erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

**BX-16 TRS kotxea** salgai.  
SS-V, 150.000 pta.  
☎ 76 48 23.

**Gasezko sukalde** indus-  
triala eta hozkailua erosi-  
ko genituzke merke-mer-  
ke. ☎ 76 02 88.

**Jertsei** urdin bat aurkitu  
dut orain gutxi Fraisko-  
zurin. 4-5 urteko ume bate-  
na. ☎ 76 16 85.

**Bilbon** pisua konpartitze-  
ko norbait behar da.  
☎ 76 61 68 (1-2, 7.8.30).

**Opel Kadett** 1800 salgai.  
SS-AH. ☎ 76 58 28.

Alfa Romeo 33 SS-AB **ko-**  
**txea** salgai. ☎ 76 02 01.

**Bizikleta** bat agertu da  
Zuhazti taberna aurrean.  
☎ 76 59 22 (Iñaki).

**Neska** batekin edo birekin  
pisua konpartituko nuke.  
☎ 76 27 30 (Arantxa).

**BMW** motoa (K-100 RS)  
salgai. ☎ 76 12 64.

**Game-boy** bat salgai. 16  
joku, 9.000. ☎ 76 48 68.

**LANA**

**Makinaz** edo **ordenado-**  
**rez** lanak pasatzen ditut.  
☎ 76 21 33 (Garbiñe).

**Ingeles klaseak** ematen di-  
tut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

**OHO** eta **ingeles klaseak**  
(maila guztiak).  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles klaseak** ematen  
ditut. ☎ 76 44 34.

**Ingeles Filologian** lizentzia-  
tuak, ingeles klaseak eman-  
go litzuzke. ☎ 76 17 36.

**Ingelesezko klaseak**  
ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Klase partikularrak.**  
☎ 76 50 67.

**Ingeles klaseak** ematen  
ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Haurrak zaindu edota  
**etxeko lanak** egingo ni-  
tuzke. ☎ 76 26 73.

**Gutxituak**, haurrak edota  
zaharrak zainduko nituz-  
ke. ☎ 76 52 08.

Haurrak eta zaharrak zain-  
du eta **etxeko lanak** egin-  
go nituzke. ☎ 76 40 94.

**Hildakoak**

*Jose Igartua Arrese*  
maiatzak 29, 86 urte  
*Fermin López Sánchez*  
maiatzak 29, 65 urte

**Jaiotakoak**

*Ander Uriarte Iturbe* maiatzak 10  
*Haizea Iñarra Muñoz* maiatzak 21  
*Kepa Zabaleta Etxeberria* maiatzak 23  
*Nekane Muñoz Poza* maiatzak 24  
*Garikoitz Moreno Arrieta* maiatzak 25  
*Ana Etxaniz Urzelai* maiatzak 29

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

**EZPELETA**  
etxeaHarizko eta kotoizko  
goimailako izara eta  
mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**ZUBIETA**  
elektragintza

✓ Motorren bobinaketa  
✓ Era guztiak instalakuntzak  
Kruz Gallastegi, 2 behe  
☎ 76 23 48





CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten  
hasiera baino ez da,  
profesionaltasun garbiko  
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpre-  
sagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.  
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta  
aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak  
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-  
biko bidean.